

Banca Popolare Etica banketxeko bazkideen ohiko batzarra egiteko deialdia.

Banca Popolare Etica banketxeko bazkideen ohiko batzarra egiteko deialdia. 2015eko azaroaren 27an egingo da, 09:30ean, lehenengo deialdian, banketxeak Italiako Padua hirian duen sozietate-egoitzan (Via N. Tomaseo, 7) eta Espainiako sukurtsalean, Bilbon (Santa María, 9). **Bigarren deialdia, berriz, 2015eko azaroaren 28an egingo da, 10:30ean**, Paduako "A. Luciani" batzar-zentroan (Via Forcellini, 170/a) eta Iruñetik gertu dagoen **Barañaingo** auditoriumean (Comunidad de Navarra, 2).

Estatutuen 26. artikuluari jarraiki, lehenengo batzarra egingo den eguna baino laurogeita hamar (90) egun lehenagotik edo gehiagotik Bazkideen Liburuan inskribatuta dauden bazkide guztiek (hau da, 2015eko abuztuaren 29a baino lehenagotik bazkide direnek) dute batzarrean parte hartzeko eta bozkatzeko eskubidea.

Estatutuen 26. artikuluari jarraiki, norbera ordezkatzuz edo beste baten izenean batzarrera bertaratzen den bazkide bakoitzak ezingo ditu 10 (hamar) boto baino gehiago eman, bereaz eta legezko ordezkari kasuez gain, ez bere izenean, ezta eskuordetze bidez ere. Batzarraren araudiak 3.4 artikuluan dionenari jarraiki, eskuordetzeko agiria idatziz aurkeztu denean, ezingo da ordezkariaren izenari dagokion atala hutsik utzi. Halaber, eskuordetze-agirian adierazitako pertsona soilik aritu ahal izango da ordezkariaren izenean (Italiako Kode Zibilaren 2372. artikulua).

Eskuordetze-agiriak eskuordetza eman duen pertsonaren sinadura originala izan beharko du eta, agiriarekin batera, azken urtean indarrean egon den nortasun agiri baten kopia ere aurkeztuko da; horiek aurkeztu ez badira, eskuordetzea bertan behera gera liteke. Pertsona fisikoak ez diren bazkideen kasuetan, eskuordetze-agiriak eskuordetza ematen duen pertsonaren legezko ordezkariaren sinadura originala izan beharko du. Agiriarekin batera, indarrean dagoen nortasun agiri baten eta erakundearen auto-egiaztapenaren kopia aurkeztu beharko dira, 2000ko abenduaren 28ko 445 zenbakiko Errepublikako Presidentearen Dekretuko 46. artikuluan jasotako arauekin bat, ordezkariaren legezotasuna egiaztatze aldera. Hala egin ezean, legezko ordezkariaren egiaztatze beste agiriren bat aurkeztu beharko da.

Batzarrean parte hartzeko legezotasuna egiaztatzeko prozesua arintze aldera, pertsona fisikoak diren bazkideek eta batzarrean hitz egiteko eskubidea duten pertsona juridikoen ordezkariak www.fiarebancaetica.coop/asamblea webgunean aurrez izena eman ahal izango dute, **2015eko azaroaren 3tik 20ra bitartean**.

Barra kodea duen BancanotE-ren kupaia edukiz eta erabiliz erraza da erregistratzea, bai alde zuzenarekin, baita batzar egunean bertan ere.

Horri buruzko informazio guztia BancanotEn dago, "Parte hartzeko argibideak" atalean. Halaber, batzarreko aztergaien zerrendari buruzko informazioa eta indarrean dauden arauak aurreikusitako guztia legezko egoitzan nahiz Bilboko sukurtsalean daude, nahi duten bazkideek azter ditzaten.

Batzarrean parte hartzeko moduen inguruan informazio gehiago nahi baduzu, jar zaitez harremanetan banketxearen Kultur Harremanen Sailarekin (Via N. Tomaseo, 7 - 35131 Padova. Italia), helbide elektronikoa honetara idatziz: assembleasoci@bancaetica.com.

Honako hau izango da batzarreko aztergaien zerrenda:

1. Batzarburuak jakinarazi beharrekoak.
2. Ezohikoa: estatutuaren aldaketa eztabaidatzea.
3. Ohikoa: batzarraren araudia aldatzea.
4. Galderak eta eskaerak.